

**Bermeoko Udalaren
eta Garabide Elkartearen arteko hitzarmena**

BATU DIRA

ALDE BATETIK: ARITZ ABAROA CANTUARIENSE jn., (NAN:) Bermeoko Udaleko alkate-udalburua.

BESTE ALDETIK: Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba jn. (NAN:) Garabide Elkarteko ordezkaria.

PARTE HARTZAILEAK

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE jn., Bermeoko Udalaren ordezkari eta izenean, Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko abenduaren 10ean hartutako erabakiari jarraiki, eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 21.1.b) eta r) artikuluek emandako ahalmenaren arabera, eta

beste aldetik,

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA PEREZ DE ARRIBA jn., Garabide Elkartearen ordezkari eta izenean, Garabide Elkartearen presidente legez, 2019ko apirilaren 11ko izendapenaren arabera, horrek ematen dizkion ahalmenen arabera.

AZALTZEN DUTE

Garabide Elkarteak urteak daramatza garapenerako euskal lankidetzaren barruan kooperazio ildo berri bat lantzen: garapen-bidean dauden herrietako hizkuntza normalizatzeko egitasmoak sustatzen, honako helburu hauekin:

- 1.- Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuekin lankidetzaz bideratzea, euskara eta euskal kulturaren garapen esperientzien trukean oinarrituta.
- 2.- Norabide horretan, munduko Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatueta eragileekin lankidetzaz proiektuak garatzea. Lankidetzaz proiektu horiek hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren garapen-aldor batzuetan gauzatzen dira, hezkuntzaren alorrean indar berezia jarritz.
- 3.- Euskararen eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuekiko lankidetzarako beren esperientzia eskain dezaten sustatzea, horretarako markoa eta bideak eskainiz.



1

Euskera Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9122 Faxa: 94 688 5010 euskera@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E4000361E600U6R9I2G5W3N1

Sinadurea eta data

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA PEREZ DE ARRIBA(G20890315-GARABIDE KULTUR ELKARTEA)-GARABIDE ELKARTEA - ORDEZKARIA - 13/01/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 13/01/2020
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/01/2020 09:30:29

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0197
Data: 22/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unida: 2019IDA_ERA_0197
Erregistro nagusia



Bermeoko Udalak, bere aldetik, egoki ikusi du aurreko urteetan egin den moduan, hizkuntza-kooperazioaren alorrean lankidetzan aritzea Garabide Elkartearekin, jatorrizko herrietan hizkuntza normalizatzeko egitasmoak sustatzeko.

Gainera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.37) artikulua araber, Bermeoko Udalaren eskumenen artean, garapenerako lankidetzaren alorreko politikak planifikatu, antolatu eta kudeatzeko ahalmenak dauzka.

Horiek horrela, bi aldeek, elkarren ahalmenak aitortuta eta ados jarrita, hitzarmen hau sinatzen dute, honako klausulen arabera:

KLAUSULAK

1.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmenaren xedea honako hau da: Garabide Elkartearen jardura eta proiektuak finantzatzeko diru laguntza zuzenaren baldintzak arautzea.

2019. urteko diru laguntza, proiektu hau gauzatzeko jasoko du Garabide Elkarteak:

- *Ruk'u'xQätinamit eskola kaqchikelen sarean murgiltze eredia indartzea.*

Trukean, merezitako aitortza publikoa egiteko konpromisoa ez ezik, herritarrengan hizkuntza minorizatuakiko sentsibilitatea pizteko Bermeoko Udalarekin adostutako ekimenetan parte hartzeko konpromisoa hartzen du Garabidek.

2.- GARABIDE ELKARTEAREN BETEBEHARRAK

Garabide Elkarteak honako betebeharrak hartzen ditu bere gain, Bermeoko Udalaren diru ekarpena jasotzearen truke:

- Diruz lagunduko den proiektua gauzatzea.
- Proiektu horri buruzko unean uneko informazioa ematea Bermeoko Udalari.
- Dagokion epean, proiektuen gauzatze mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru kontuak egoki zuritzea.

3.- BERMEOKO UDALAREN BETEBEHARRAK

- Diru-ekarpenaren ordainketa zehaztutako modu eta garaian egitea.
- Garabiderek elkar lanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izan den duena.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatzen ahal dozu.
Kodea:
07E4000361E600U6R9I2G5W3N1

Sinadurea eta data

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA PEREZ DE ARRIBA(G20890315-GARABIDE KULTUR ELKARTEA)-GARABIDE ELKARTEA - ORDEZKARIA - 13/01/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 13/01/2020
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/01/2020 09:30:29

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0197
Data: 22/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



4.- EKARPEN EKONOMIKOA: KOPURUA ETA ORDAINZKEKO MODUA

Ekarpn ekonomikoaren kopurua 2019. urtean 6.500 eurokoa izango da, Bermeoko Udalaren aurrekontu propioak horretarako aukera ematen dion neurrian eta betiere, dagokion diru izendapena aurreikusi bada aurrekontuan.

Diru laguntza modu honetan ordainduko da:

- % 75: 4.875 euro hitzarmen hau sinatu ondoren.
- % 25: 1.625 euro ekintza guztiaren gastuak justifikatzen direnean

Aurrekontuaren partida honakoa da: 01400-33540-4810120

5.- DIRU LAGUNTZAREN ARAUBIDEA

Diru laguntza hauek Diru laguntzen Lege Orokorra onartzen duen 38/2003 Legearen 28. artikulua araberan eman daitezke, eta bertan xedatutako baldintzak bete beharko dira.

Era berean, diru laguntza hauen araubidea, aitaturako 38/2003 Legean jasotakoa izango da.

6.- BESTE LAGUNTZA ETA SARREREKIKO BATERAGARRITASUNA

Jasotako diru laguntza lortu daitezkeen bestelako sarrera publiko zein pribatuekin bateragarriak izango dira, beti ere gain-finantzaketarik ez dagoen bitartean.

Horrela izanda Garabide Elkarte behartuta egongo da bere finantzaketarako lortzen dituen bestelako sarrera eta diru laguntzen berri ematera eta, denetara %100etik gorako finantzaketarik lortzen badu, Bermeoko Udalar horren berri ematen, gain-finantzaturako kopuruak berreskuratzeko prozedurari hasiera eman diezaion.

Horrela egingo ez balitz, zigorra ipintzeko arrazoia izango litzateke, itzuli beharreko kopurueri lege interesak aplikatzearen kalte barik.

7.- DIRU LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

Diru laguntza horretarako erabili dela egiaztatzeko eta Lankidetz hitzarmena bete duela justifikatzeko, GARABIDE ELKARTEAK, urteko aurrekontua eta diru-sarrerren eta irteeren balantzea aurkeztu beharko ditu, gastu eta sarrerak modu zehatzean jasota.

Agiri horiek gastuak justifikatzen dituzten dokumentuekin lagunduta joango dira, hala nola, fakturak, langileen soldata-orriak, gizarte segurantzako kotizatze agiriak, etab.



3

Euskera Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9122 Faxa: 94 688 5010 euskera@bermeo.eus /
www.bermeo.eus IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E4000361E600U6R9I2G5W3N1

Sinadurea eta data

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA PEREZ DE ARRIBA(G20890315-GARABIDE KULTUR ELKARTEA)-GARABIDE ELKARTEA - ORDEZKARIA - 13/01/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 13/01/2020
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/01/2020 09:30:29

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0197
Data: 22/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Dokumentuak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan daitezke.

Era berean, diru laguntzaren helburuak eta zehaztutako bete beharrak bete direla justifikatzeko memoria txostena aurkeztu beharko du.

Justifikazioa diru laguntza jaso eta hurrengo urteko lehenengo hiru hilabetean egin beharko da.

Aurreko laguntza guztiak justifikatu beharko dira beste laguntzaren bat onartu ahal izateko eta horrela egin ezean, dagozkion zigor edo itzultze espedienteak izapidetuko dira.

8.- DIRU LAGUNTZAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Bermeoko Udalak, bere aldetik, eta Diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen aginduei jarraiki, honako eginkizunak beteko ditu:

- Emandako diru laguntzaren kontrolak egin, diru laguntza oinarritzen dituen helburua eta egintzak benetan egin direla egiaztatu ahal izateko.
- Lege berari jarraiki, diru laguntzaren oinarriak ez direla bete ikusten bada, edota ez direla era egokian justifikatu ikusiz gero, desbideratutako diru publikoa berreskuratzeko, udalak dagozkion prozedura eta espedienteak izapidetuko ditu.
- Era berean, hitzarmen honetan jasotako baldintzak zehatz betetzen ez direla ikusiz gero, emandako diru laguntza berreskuratzeko, udalak dagozkion prozedura eta espedienteak izapidetuko ditu.
- Eta berdin jokatu du udalak, emandako kopuruak hitzarmen honetan jasotako helburuak betetzera bideratu beharrean bestelakoetara bideratu direla egiaztatuko balitz.

9.- HITZARMENAREN ERAGINAK ETA INDARRALDIA

Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek bere horretan eusten diete beren ahalmenei eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietarako, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du eta sinatzaileak behartuko ditu 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta urtebeteko indarraldia izango du; hau da, 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra arte.

10.- ARAU-HAUSTE ETA ZIGORREN ERREJIMENA

Arau-hauste legez hartuko dira jokabide hauek:

- 1.- Bigarren atalean jasotako betebeharrak ez betetzea.
- 2.- Jasotako diru laguntza ez justifikatzea horretarako emandako epean.
- 3.- Eskuratutako bestelako sarreraren barri ez ematea, berdin publikoak zein pribatuak izan.
- 5.- Gain-finantzaketarik balego, horren berri ez ematea edota itzuli beharreko kopuruak ez itzultzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E4000361E600U6R9I2G5W3N1

Sinadurea eta data

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA PEREZ DE ARRIBA(G20890315-GARABIDE KULTUR ELKARTEA)-GARABIDE ELKARTEA - ORDEZKARIA - 13/01/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 13/01/2020
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/01/2020 09:30:29

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0197
Data: 22/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Lehenengo bi ataletan jasotako arau-hausteen kasuan, onartutako diru laguntza murriztea ekarriko du zigor moduan, egindako ez betetzeen garrantziaren arabera kalkulatu dena, ez bada, ez betetzeen larritasunagatik diru laguntza osorik itzultzea erabakitzen dela.

Azken bi ataletan aurreikusitako arau-hausteen kasuan, diru laguntza osorik itzultzea ekarriko du zigor moduan, eta hurrengo urteetan diru laguntza berriak eskuratzeko ezintasuna suposatuko du.

Zigor horiek ipintzeko, legediak aurreikusitako prozedura jarraituko da eta erabakia hartu orduko interesdunari entzunaldia ematen zaiola bermatuko da.

11.- LEGEDI APLIKAGARRIA

Hitzarmen honi honako legedia aplikatuko zaio:

1. Diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legea.
2. Diru laguntzen Legearen Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.
3. Zuzenbide administratiboko arau orokorrak.
4. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Hori horrela, hitzarmenean aurreikusten ez den guztirako, edozein zalantza argitu eta hitzarmena interpretatzeko, aitaturako legediak aurreikusitakoa jarraituko da zehatz.

12.- HITZARMENAREN IZAERA JURIDIKOA

Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Ondorioz, honen aplikazio edo interpretazioan hartzen diren erabakiek bide administratiboari amaiera emango diote eta zuzenean aplikagarriak izango dira, Administrazioarekiko Auzibidean errekurritzeko eskubidearen kalte barik.

Eta horrela ager dadin, honako hau ematen dutenek agiri hau onartzen dute, eta lau ale sinatu, eragin bakarrerako.

Bermeon, 2019ko abenduaren 16an

Aritz Abaroa Cantuariense jn.
Bermeoko Udala

Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba jn.
GARABIDE elkarte



5

Euskera Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9122 Faxa: 94 688 5010 euskera@bermeo.eus /
www.bermeo.eus IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E4000361E600U6R9I2G5W3N1

Sinadurea eta data

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA PEREZ DE ARRIBA(G20890315-GARABIDE KULTUR ELKARTEA)-GARABIDE ELKARTEA - ORDEZKARIA - 13/01/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 13/01/2020
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/01/2020 09:30:29

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0197
Data: 22/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

